

## **EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN AKTA**

2015eko abenduaren 10ean

Gasteizen, 2015eko abenduaren 10eko 17:00ak direla, Eusko Legebiltzarraren egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordearen lehendakari Juan Luis Ibarra Robles jauna, eta Batzordearen bokalak diren Andres Maria Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., Jose Ramon Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta Maria Carmen Agoues Mendizabal and., azken honek bideokonferentziaz hartu du parte. Batzordearen idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre andrea ere bileran egon da. Honako erabakiok hartu dituzte:

### **ERABAKIAK**

**LEHENENGOA.- ESKUMEN-GATAZKA PLANTEATUZ  
BATZORDEAN SARRERA IZAN DUEN IDAZKIAREN  
AZTERKETA.**

Idazkari andreak idazkiaren berri eman du, zeina Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanetarako Saileko Lege Aholkularitza Zerbitzuaren letradu buruak 2015eko abenduaren 1ean aurkeztu baitzuen. Aipatutako idazkian eskumen-gatazka planteatu zen “Euskal Autonomia Erkidegoko Barne-antolaketa”ri buruzko lege-proposamenaren aurrean.

## **BIGARRENA.- ESKUMEN-GATAZKA “EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BARNE-ANTOLAKETA”RI BURUZKO LEGE-PROPOSAMENAREN AURREAN.**

“Euskal Autonomia Erkidegoko Barne-antolaketa”ri buruzko lege-proposamenaren aurrean Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako eskumen-gatazkari dagokionez, honako hau ebazten da:

1. Planteatutako eskumen-gatazka izapidetzea onartzea, zeina 1/2015 zenbakiarekin erregistraturik geratu baita.

2. Legitimatutako erakundeei helarazpena egitea, hogeitau eguneko epean Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako eskumen gatazkari buruz bidezko deritzotena alega dezaten.

3. Kepa Bilbao Gaubeka jauna txostengile izendatzea, txandaz berari baitagokio.

4. Eusko Legebiltzarraren Mahaiari erabaki honen berri ematea, eta ekimena proposatu dutenei helarazpena egitea, 20 eguneko epean bidezko deritzoten alegazioak aurkez ditzaten, Ebazpen Batzordearen Legeko 50.2 art.ak xedatutakoarekin bat.

## **NORBERAK LEKARKEENA.**

Eusko Legebiltzarreko Idazkaritzak eskatu du Batzordearen gai-zerrenda Legebiltzarreko web orrian sartzeko.

Erabakitzen da elebitan bidaltzea Legebiltzarreko Prentsa eta Komunikazio Atalera.

Bestelako aipatzekorik gabe, amaitutzat ematen da honako bilera hau, 17:45ak direnean, eta bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo saiorako, zeina 2016ko abenduaren 22an egingo baita, 16:00etan Bizkaiko Batzar Nagusietako Egoitzan. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta bokaleek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.

